

ERALDAKETA FABRIKA

EKINTZAILETZA PROGRAMA

KOOPERATIBAK EKONOMIA
SOZIAL ETA ERALDATZAILETIK
ERATZEKO PROGRAMA

Zer da Eraldaketa Fabrika Kooperatiba Ekintzailtza Programa?

Eraldaketa Fabrika BDSKoop Elkarteak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Sailari esker eskaintzen duen ekintzailtza programa bat da. Bidasoaldean (Irun et Hondarribian) kooperatibak eratzen laguntzen programa bat da. Zehazki, Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileko ikuspegitik egiten dugu lan, hau da, gizartearen beharrei begira arituko diren enpresak eratzen laguntzen dugu. Ikuspegi feminista, ekologista eta sozial batetik lan egin nahi duten enpresak eratzen laguntzen dugu eta gure programan bertan filosofia horretatik lan egiten dugu.

Programan parte hartzeko baldintzak.

- **Proiektuak Bidasoaldean errotua egon behar du.** Ez du zertan Bidasoaldean aritu bakarrik, baina bai lurraldearekiko atxikipena eduki.
- **Kooperatiba edo Lan Sozietatea eratzeko proiektuak izan behar dute.** Programan ez dira SL, autonomo edo bestelako egitura juridikoak garatzeko proiektuak onartuko.
- **Proiektuak Ekonomia Sozialeko logikan txertatua edo enfokaturik egon beharko du,** hots, langileen onura ekonomiko hutsetik harago, bere inguru natural eta soziala elikatu eta osagarritzeko asmoa agertzen duen proiektu bat izan behar du.
- **Ez du zertan irabazi asmo gabeko asmoa izan,** baina bai ordea enpresaren irabazien inguruko planteamendu sozial bat egin.
- **Hainbat ikuspegi ezinbestean txertatuak beharko ditu proiektuak:** genero ikuspegia, euskararen erabilera eta jasangarritasun ekologikoa.

Zer eskaintzen dugu?

Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen ikuspegitik ekin ahal izatea

Ekintzailtza programa honek beste ekonomia batetik lan egiteko aukera ematen du, zehazki, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailetik. Programa konbentzionalek zeharka ukitu ohi dute gizartearen beharretara begira eraikitako ekonomia ekosozial hau, baina Eraldaketa Fabrika

programaren kasuan, programaren esentzia da. Olatukoop-etik sustatutako KoopFabrika programaren lerro berean kokatzen da.

Ikuspegi feminista, ekologista eta euskalduna integratzeko edota indartzeko filosofia

Ekonomia Sozialarekin batera, ezinbestean Eraldatzailea izatea bilatzen dugu gure elkartean. Eraldaketa honek jasangarritasun ekologikoa eta sozialak bilatu behar dituela ulertzen dugu, genero ikuspegi integral batetik landuta eta gure lurraldeko kultura integratuta. Horregatik, Eraldaketa Fabrika programak zehar lerro hauek txertatzen ditu bere proposamenean.

Azkartasuna

Kurtso batean (4 hilabetetan) enpresa martxan egotea bilatzen da. Hau da, enpresa ideiatik hasi, eta enpresaren eguneroko lanak planteatu eta garatzera iristen gara.

Pertsonalizatua

Bakarkako prozesuak izanik, beharren araberako programa izan daiteke. Ez dago bidelaguntza hasteko eperik. Kurtsoko edozein momentutan aktibatu daiteke. Era berean, programa nahi den abiaduran egin daiteke.

Malgutasuna


Ekintzailearen denbora beharretara egokitua. Formakuntza eta bidelaguntza eskaintzen dira eta ekintzaileek erabakitzen dute eskaintzen diren tresnen artean zertan sakondu.

Eraginkortasuna eta praktikotasuna

Planteamendu teorikotik hasita, emaitza praktikoak bilatzen dira. Ez gara enpresa planean geratzen. Enpresa sortu eta martxan egon arteko pauso guztiak hausnartzen ditugu zurekin. Formakuntza programa osoa dugu online eskuragarri, nahi izanez gero, 11 saiotan landu daitekeena, eta horretaz gain, 60 orduko bidelaguntza eskaintzen dugu, kudeaketa administratibo, diru laguntza eskaera eta komunikazioan.

Ekintzailletza programa: MAHAIA

Ekintzaile eta sustatzaileak bueltan dituen mahaia osatuko lukeen ekintza plan honek lau hanka ditu: landu, azaldu, formatu eta zaindu.



Berriro ere, dagoeneko frogatuak dauden ekintzailletza planetatik hasita, gurera ekarri dugu egitura bera, kasu honetan, enpresa plana osatzeko ariketak era informatiboan txertatuz, eta beste osagai batzuk gehituz:

Lehen hanka: azaldu

Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen (ESE) eta kooperatibagintzaren (forma juridikoak eta historia) inguruko lanketa teoriko minimoa egingo da. Kanpo ideia denean, enpresari dagokion burujabetza alorraren inguruko azalpen saioa ere egingo da.

Bigarren hanka: landu

Kanpo ideia denean, enpresa plana garatuko da haiekin batera eta barne ideia denean, alde zuzenetik egindako enpresa plana azalduko zaie. Edozein kasutan, lanketa enpresa planaren

bost bloketan egingo da: ideiaren azterketa, merkatuaren azterketa, marketing-a, ekoizpenaren azterketa eta finantza plana edo bideragarritasun plana

Hirugarren hanka: formatu

Enpresa bera martxan egongo denean jorratu beharreko lanetan prestatuko ditugu. Kooperatibaren kudeaketarako formakuntza eskainiko da, lan orokorrei begira (administrazioa, estrategia planak, etab.), zein, lan jarduera espezifikoarekin lotutakoak (lan banaketak, denborak, zikloak, etab.). Lan hauek identifikatu eta hauek lantzeko bitartekoak eskainiko zaizkie.

Laugarren hanka: zaindu

Ekintzaitza prozesuak zaintza lan handia eskatzen du. Gure kabuz lan egiteko apostuak tentsio eta zalantza asko ekarri ditzake, eta prozesu emozional eta psikologiko hori bidelagundu beharrekoa dela pentsatzen da. Talde dinamika sortu; behar, beldur, espektatiba eta helburu kolektibo eta indibidualak landu eta erakunde baitako eguneroko zaintza mekanismoak sortu edozein erakunderen ezinbesteko lehenengo lan erreproduktiboak dira.

Mahaia: ekintza plana

Lau hanka hauek ekintza plana bera sostengatzen du. Ideigintzatik hasi eta enpresa martxan jarri eta bidegarria egin arteko pauso guztiak barnebiltzen ditu ekintza plan honek. Enpresa idei argi bat eduki, oinarri teoriko batzuekin sostegatuta eta motibatuta, enpresa beraren jardueraren jarraipen egoki batez eta hori dena ongi zainduta lortzen da ametsak erreal egitea.

Programazioa

Enpresa plan bakoitzaren arabera egokitu beharko bada ere (kasu bakoitzean, ekintza planean zehaztu beharko da kronograman ekintza hauen egutegia), honakoak dira estimatzen diren saio minimoak:

HANKA	EDUKIA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
1. hanka: azaldu (azalpen teorikoa)	1.1_Kooperatiba motak, egitura juridikoa eta onurak	█										
	1.2_Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen oinarriak	█										
	Formakuntza teoriko sektoriala: agroekologia, energia, informatika... Antzeko enpresetara txangoak											
2. hanka: landu (enpresa plana landu)	2.1_Enpresa IDEIA (A)		█									
	2.2_ENPRESA PLANA, 4 blokeak		█								█	
	Enpresa ideia (A)		█									
	Merkatu azterketa (B)			█								
	Marketing-a (C)				█							
Ekoizpenaren azterketa (D)					█							
2.3_BIDERAGARRITASUN plana										█		
2.4_KOMUNIKAZIO plana (C)					█							
3. hanka: formatu (enpresa kudeaketan formatu)	3.1_Administrazioa							█				
	Ogasuna							█				
	Gizarte segurantza							█				
3.2_Enpresa kudeaketa (D)									█			
4. hanka: zaindu (ekintzaitza prozesuaren zaintza jarraia)	Lan kostuak											
	Altxortegia											
	Lanen banaketa											
	Diru laguntza eskaerak											
	Zaintza jarraipena			█	█				█			
Norbanako-erakunde tentsioak												
Behar eta espektatibak												
Dedikazioen lanketa												
Konpromisoak												
Ekintzaitzaren bidai emozionala/perfila												
Mahaia: ekintza plana	Enpresa plana gauzatu ahal izateko eman beharreko pauso praktikoak, zein hankek osatzen duten formakuntza barnebiduko dituen plan baten diseinua eta egutegia barnebiduko ditu.											█

Denborak

Gure programak bi zerbitzu eskaintzen ditu: 22 h formakuntza eta 60 h bidelaguntza. Formakuntzan “mahaiaren ereduarekin” azaltzen ditugun edukiak azaltzen dira, eta bidelaguntza honako alorretan ematen da: diru laguntza eskaera zerbitzua, gestio edo administrazio lanak edota komunikazio lanak.

	Ekintzaileak	BDSKoop-eko bidelagunak
Formakuntza		22 h / 11 saio
Etxeko lanak	12 h	
Enpresa martxan jartzeko lanak (enpresaren araberakoa)	40 h	
Bidelaguntza		60 h